

EUSKAL HERRIA

HISTORIA ETA GIZARTEA - HISTORIA Y SOCIEDAD

Horra Lankide Aurrezkiak, Joseba Intxaustiren zuzendaritzapean, aterra berri duen liburu haundiaren izenburua. Liburuak seirehun orrialde ditu, baina hori esatea ez da ezer, orrialde bakoitza oso haundia, letra txiki samarrekoa eta trinkoa bait da hiru habetan emana. Liburu normaletara ekarririk, hemengo orrialde bakoitzak besteetako hiru lituzke. Beraz, seirehun orrialde horiek mila eta bostehun orrialdetatik gorako alea osatuko lukete.

Halako orrialdeak izanik, ez uste molde irakurgaitza denik. Oso paper onean eta letra gozoan inprimatua da, letra moldeak ere, heuren trinkotasu-nean, bariatuak direlarik. Gainera orrialde guztiek dagokien ilustrazioa daramatenez gero, liburua nonahi ireki, begibista atsegina egingo dizu.

Zertaz da liburu hau? Hona Joseba Intxaustik berak hitzaurrean dioena: “EUSKAL HERRIA du obra honek izenburua, eta horixe da, bestalde, oso osorik gaia ere. Euskal Herria bere barruti osoan hartuta esan nahi da: Hegoaldearekin batera, Iparralde; gainerako herrialdeekin elkartua, Nafarroa handi eta irekia. Bi liburukitan banatzen dugu gure iraganaren eta orainaldiaren berriemate hay. Eta zinezko elebitasun batekin eraman nahi izan da lana. Lankidego zabalak hartu du parte; eta hortxe saiatu da bakoitza bere jakitateak modu labur eta trinkoan irakurleari eskaintzen.

Baina egindako ahaleginen zentzua jakiteko, komeni da zein moldetako irakurlea genuen buruan jakitea ere: ez, noski, irakurle aditua, azaltzen ditugun arloetan bereziki jakituna, eta bai aitzitik, irakurle arrunt jakinzalea. Gutxi-asko, honelakoak bait gara denok: gure eguneroko jakin-barrutietatik urrundu orduko, auzokoarenean galduak, eta lehen pausoetarako hain zuzen hemen eskaini nahi dugun liburuaren antzekoetan itsumutila bilatzen dugunak...”.

Ez da nire asmoa liburuaren kritikarik egitea, aurkeztea baizik. Honelako liburu bati kritika egiteko, norberak ere zerbait baino gehitxoago jakin behar du eta ni hemen adierazten diren gairik gehienetan Intxaustik hitzaurrean dioen “jakinzale” horietatikoa besterik ez naiz. Nolabait esateko, EUSKAL HERRIA hau enziklopedia txiki bat bezala da, gure herriaz eta

gure buruaz diharduena, jakintzaren eta zientzien arlorik gehienak harturik. Gaizki kontatu ez baditut, hirurogeita bost lankide edo kolaboratzaile dira liburu osatu dutenak, bakoitzak bere espezialitateko arloari ekiten diotela.

Gaien zerrenda eman aurretik, elebitasuna aipatzea komeni izango da, Joseba Intxaustik honela dioskuna hitzaurrean: “Gatozen orain liburu honek bere baitan daukan beste bikoiztasun batera: liburuan zaindu den elebitasun nabari honetara, alegia. Benetan izan nahi du elebiduna liburuak. Benetan. Eta gure elebitasun erreala gogoan hartuta, liburuak ulertu euskaldunek bakarrik ulertuko dutela —osorik— pentsa liteke... Idazlan bat bera ez da bigarren hizkuntzan errepikatzen. Liburu osoko orrialde denak, elkarren jarraikitasunean, berriak dira beti”.

Liburuari begiraturik, elebitasun “benetako” hori lortua dela dirudi. Euskarazkoak eta erdarazkoak ez dira elkarren itzulpenak, beti gai berriak baizik, eta hortik euskalduna bakarrik izatea liburu osoki uler lezakeen bakarra. Noizbait behar genuen abantailaren bat.

Lehen partea

EUSKAL HERRIA: HERRI BATEN ESPAZIO DENBORAK ESPACIOS Y TIEMPOS DE EUSKAL HERRIA

- Investigaciones geológicas — Euskal Herriaren geologia.
- Geografía física: la tierra — Euskal Herriko geografia fisikoa: Lurra.
- Euskal Herriko geografia: Itsasoa — Geografía de Euskal Herria: el mar.
- Ecosistemas históricos — Ekosistema historikoak.
- Euskal Herriko giza geografia — Organización del espacio vasco.
- Euskal Herriko etxebizitza — La vivienda de Euskal Herria.
- Antropología física del hombre vasco — Euskal Gizakia.
- Nuestra cultura material en la prehistoria.
- Antropología cultural vasca. Aspectos.
- Izpirituzko kulturaren antropologia.
- Euskal demografia historikoaz — Historia de la población.
- Arabako historiaz — Síntesis de la historia de Alava.
- Bizkaiko historia — Historia de Vizcaya.
- Historia de Guipúzcoa — Gipuzkoa historian.
- Nafarroako historiografiaz — Historia de Navarra.
- Iparraldeko historiografiaz — Aspectos de la historia de Iparralde.

Bigarren partea

EUSKAL HERRIA: SORMENAREN BARRUTIAK EUSKAL HERRIA: AMBITOS DE LA CREACION

- Euskal Herriko historia ekonomikoa.
- De artesanía vasca.

- Europa y la revolución cultural en el País Vasco.
- Las relaciones laborales (1841-1936).
- Tradiciones cooperativas vascas.
- Euskal sistema juridiko publikoa — Derecho e instituciones públicos de los territorios históricos. Navarra. Vizcaya. Alava. Guipúzcoa. Laburdi. Zuberoa. Baja Navarra.
- Euskal Historiaurreko erlijiotasuna.
- Introducción del cristianismo en el País Vasco.
- Historia de la Iglesia en el País Vasco.
- El pensamiento vasco a través de la historia y su relación con la realidad.
- Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian.
- Zientzia eta teknika euskal historian.
- Historia de la medicina en el País Vasco.
- Artea Euskal Herrian — Historia del arte en el País Vasco.
- En torno a la historia de la música vasca.
- Euskal musika.
- Reflexiones sobre la danza — Euskal dantza tradizionala.
- Euskararen historia.
- Ahozko literatura Euskalerrian: ebokamen.
- Ahozko literaturaren historiaz.
- Bertsolaritza.
- Euskal Literaturaz.
- La literatura vasca a través de los siglos.
- Juegos infantiles en nuestra sociedad tradicional — Umeen jokoak gure gizartean.
- Euskal Herri-kirolak. Zenbait kirol, banaka.

Hirugarren partea

EUSKAL HERRIA: KRISIALDIA EUSKAL HERRIA: LA CRISIS

- Política, nacionalismo y cultura.
- El nacionalismo vasco en el concierto de los nacionalismos peninsulares. El nacionalismo vasco. El nacionalismo catalán. El nacionalismo gallego. Contactos trinacionales galeuzcanos.
- El socialismo vasco.
- Euskal abertzaleen sozialismoak.
- *La modernización institucional* — *Eraberritze saioak*.
 - Supresión del régimen foral.
 - El derecho público vasco desde 1876 hasta el estatuto de Gernika.
 - Reflexiones sobre las instituciones navarras.

Liburuaren aurkezpen bat egiteko, aurkibide guztia emateak kaparrada gehiegi badirudi ere, modurik onena eritzi diot, ideia bat emateko. Gaien

zerrenda ikusirik, irakurleak badaki zernahi hautatzeko komenentzia duela. Kontsulta liburua bezalakoa dugu, beraz, edo gorago esan bezala, enziklopedia txiki bat.

Lan bakoitza autore desberdinak egina da, bakoitza bere espezialitatean, eta oro har, Euskal Herriaren ikuspegi osoaz jabetzeko, nekez bilatuko duzu orain arteko bibliografian honelako tresnarik. Ez da noski espezialistentzako liburua, denetik informazio ona eduki nahi dutenentzakoak baizik. Baina arlo bateko espezialistarik zorrotzena ere beste arlo askotan ezjakina gertatzen denez gero, liburu honek denentzako dauka zerbait irakurgarririk.

Atalen izenburuetatik sail batzutan euskarazkoak eta erdarazkoak gai berari buruz badira ere, ez dira elkarren itzulpenak, gai horretaz kapitulu desberdinak baizik.

Azkenik esan dezadan euskararen eta erdararen presentzia, liburu guztia jota, erdiz erdizkoa inguru dela. Ez dut proportzio zehatzik atera, baina liburuari pasada bat edo beste emanik, hortxe-hortxe ibiliko da. Batzutan gogoz eta beste batzutan beharrez, hamaika bider jo beharko dugu EUSKAL HERRIA honen orrialdeetara. Nora jo edukitzea, horixe da liburu honen gauzarik ederrena, euskaraz batez ere oraindik hain premiaz beterik gauden egoera honetan.

Xabier Amuriza